

Etika Publikorako Batzordea

2/2016 gaia

ERABAKIA, (...)KO KUDEAKETAKO ZUZENDARITZAREN ETA (...)KO ADMINISTRAZIO-KONTSEILUAREN JARDUNA DELA-ETA (...) ANDREAK AURKEZTUTAKO KEXARI BURUZKOA

- 1.- Etika Publikorako Batzorde (EPB) honen idazkaritzan 2015eko azaroaren 26an erregistratu zen idazkiaren bidez, interesdunak kexa aurkeztu zuen “(...)ko Kudeaketako Zuzendaritzaren” eta (...)ko Administrazio Kontseiluaren jarduna zela eta.
- 2.- Idazki horrek dioenez, kexaren egileak -zeina, bere lekukotasunaren arabera, “duela 12 urte baino lehenagotik eta (...)n duela 25 urte baino lehenagotik” ari baita lanean- zenbait egoera gatazkatsu bizi izan ditu 2011tik 2015era bitartean, eta egoera horiek —betiere haren iritziz— EPB honen esku-hartzea justifikatu lezakete.
- 3.- Lehenengo gatazka —haren kontakizunari jarraituz— “2011n gertatu zen, doktorego-tesia egiten ari nintzela. (...) jauna, (...)ko burua, eta (...) andrea, (...)ko burua, ikerketaren egiletza eta tesiaren zuzendaritza bereganatu nahian ari ziren, eta nik ez nuen onartu”. Orduan —dio idazkiak— bi pertsona horiek “jazartzeko eta izen ona zikintzeko kanpainari ekin zioten nire aurka, (...)ko zuzendaritzen eta lankideen aurrean”. Hala ere —gehitzen du— “nahi zutena ez dute lortu oraingo zuzendaritza heldu arte; oraingo zuzendaritzarekin —amaitzen du— unitatetik nahitaez irten nadin lortu dute”.
- 4.- Puntu honetan kexaren egileak beharrezkotzat jotzen du hau azpimarratzea: “(...)ko burua (...) jauna da, (...)ko kudeatzailearen neba, zeina 2013ko urtarriletik ari baitzen eginkizun horietan”.
- 5.- Gorabehera horrek sortu zuen egoeraren ondorioz, “(...)ko zuzendaritzarekin” bilera egitera deitu zuten interesduna, eta bilera hartan esan zioten lekuz aldatu behar zutela, “ondo” egongo zela, berak “zerbitzuan irautea ezinezkoa” zela une hartan, eta horregatik hobe zela bera “behin-behinean irtetea”. Kexaren egileak ez zuen aurka egin, “agindua obeditu” besterik ez zuen egin. Hala, behin-behineko lekualdaketa 2013ko apirilaren 1ean egin zen.
- 6.- Egoera horrek urtebete iraun zuen. Epe hori igarotakoan interesdunak unitatera itzultzeko eskatu zuen. Zuzendaritzak eskaera onartu zion eta lekualdaketa 2014ko apirilaren 1ean egin zen.
- 7.- Unitatera itzuli eta handik lau egunera, kexaren egileari salaketa jarri zioten, “(...)k” sinatua. Salaketaren ondorioz aurretiazko informazio-espeditentea abiatu zen, eta, horren buruan, diziplina-espeditentea hastea proposatu zen. Diziplina-espeditentea izapidetzen hasita zegoela, interesdunari “aldi baterako ezintasuna” suertatu zitzaion eta “egoera horretan zenbait hilabete”

eman zituen. Ezintasun egoera, “ospitaleratze bat” barne, 2014ko irailean amaitu zen; orduan interesduna lanpostura itzuli zen.

8.- Baina salaketak bere bide administratiboan aurrera jarraitu zuen. Kexa-idazkiak gertaerei buruz dakarren azalpenaren arabera, “(...)ko kudeatzaileak —salatzaileetariko baten arreba bera— gertaerei buruzko aurretiazko ikerketa administratiboa abiarazi zuen. Ikerketa horretan instruktore eta idazkari izendatu zituen andreak erakundeko teknikari juridikoak ziren eta, beraz, hierarkian bere menpekoak zituen”. Instrukzioaren arduradunek deklarazioa hartu zioten interesdunari. Lekukotza horretan bildutako informazioa oinarri, (...)ko kudeatzaileak ebazpena eman zuen eta bertan erabaki zuen diziplina-espeditentea abiaraztea kexaren egilearen aurka.

9.- Espedientea izapidetzen hasi zen. Titulazio juridikoko goi mailako teknikari bat izendatu zuten diziplina-espeditenteko instruktore. (...)ri atxikitako langilea zen eta, “beraz, ez zen hierarkian (...)ren menpekoa”, dio kexa-idazkiak.

10.- Instruktoreak deklarazioa hartu zien interesdunari eta, interesdunak eskatuta, “eztabaidatutako gertaeren lekuko izan ziren langileei”. Haien lekukotasuna entzun ondoren, instruktoreak —betiere kexaren egilearen idazkiak dioenez— “diziplina-espeditentea largestea proposatu zuen, inkongruentziak ikusten zituelako salatzaileek azaldutako bertsioaren eta salatutako gertaeren lekuko izandako gainerako langileen bertsioaren artean”.

11.- (...)ko kudeatzaile andreak instruktorearen proposamena onartu zuen eta auzia largesteko ebazpena eman zuen. Kexa jartzeko idazkiak zehazten duenez, ebazpen horrek ez zuen auzia largetsi “salaketaren faltsutasunagatik, horixe izan arren instruktorearen txostenetik ondorioztatzen zen egia, baizik eta ez omen zegoelako <<behar adina frogatuta interesdunaren aurkako diziplina-espeditentea eragin duten egitateekin lotuta inolako faltarik egin denik; egitate horiek ezin izan dira modu sinesgarrian frogatu>>”.

12.- Horren aurrean kexaren egileak alegazio-idazkia aurkeztu zuen “ebazpenean egia jaso zedin, hau da, salaketaren faltsutasuna, eta ez nire aurkako frogarik eza”. Alegazio horiek, kexa-idazkian azaltzen denez, “salatzailearen arreba den (...)ko kudeatzaileak ebatzi zituen, eta bere horretan mantendu zuen largespenaren arrazoia, hots, salatzaileek egitateak modu sinesgarrian frogatu ezin izana”.

13.- Aurreko puntuan aipatutako alegazioez gainera, kexaren egileak eskatu zuen zehapen-espeditentea egin zedila salaketaren egileen aurka, eta kudeatzaile andrearen abstentzioa eskatu zuen, “haren neba salatuetakoa zelako; kudeatzaileak abstentzioa ematea onartu zuen eta (...)ko zuzendari nagusiari igorri zion, jakitun egon zedin eta ebatz zezan, eta hark erantzun zuen, bere erantzuna justifikatu gabe, ez zuela bidezkoztat jotzen inongo zehapen-prozedurarik hastea”. Ebazpen horren aurka, interesdunak gora jotzeko errekurtsioa aurkeztu zion (...)ko Administrazio Kontseiluari, eta berriro ere ezetsi egin zioten. Orduan, kexaren egileak uko egin zion administrazioarekiko auzien bidera jotzeari.

14.- Interesdunaren idazkiari erantsita, honako agiri hauen kopia soilak jaso dira:

- Lanpostura itzultzearen jakinarazpena, 2014ko martxoaren 27an erregistratua.
- (...)ko zuzendari kudeatzailearen ebazpena, kexaren egilearen aurka aurkeztutako salaketen gaineko aurretiazko ikerketa abian jartzen duena.
- (...)ko zuzendari kudeatzailearen ebazpena, kexaren egilearen aurkako diziiplina-espedientea abian jartzen duena, aurretiazko ikerketaren emaitzaren ondorioz.
- (...)ko zuzendari kudeatzailearen ebazpena, zehapen-espedientearen izapidetzea eteten duena, kexaren egilearen ezintasun iragankorra dela eta.
- Interesdunaren aurkako diziiplina-espedienteko instruktoreak emandako ebazpen-proposamena.
- (...)ko zuzendari kudeatzailearen ebazpena, diziiplina-espedientea ebazten duena.
- Interesdunak ebazpenaren aurka aurkeztutako alegazio-idazkia.
- (...)ko zuzendari kudeatzailearen ebazpena, interesdunak aurkeztutako alegazioak ezesten dituena.
- Interesdunak (...)ren aurka salaketa jartzeko eta ikerketa eta diziiplina-espedientea egin daitezela eskatzeko aurkeztutako idazkia.
- (...)ko zuzendari nagusiaren ebazpena, diziiplina-espedientea egiteko eskaerari ezetza ematen diona.
- Interesdunak (...) ebazpenaren aurka (...)ko Administrazio Kontseiluari aurkeztutako gora jotzeko errekurtoa.
- (...)ko Administrazio Kontseiluaren 2015eko (...)ko erabakia, gora jotzeko errekurtoa ezesten duena.

15.- Kexa-idazkian salatzen diren gorabeherak gehienbat (...)ko zuzendari kudeatzaileari dagozkie. Beraz, 2015eko abenduaren 30ean EPBko idazkaritzak salaketa jakinarazi zion eta egokitzen jotzen zituen alegazioak aurkezteko eskatu zion.

16.- 2016ko urtarrilaren 8an erregistratutako idazkian, (...) andreak adierazten du “guztiz zuzenak” izan direla bai bere jokabidea bai “egindako jarduketa guztiak”, eta gertaerei buruzko bere azalpena egiten du, interesdunak hasierako kexan azaldutakoarekin alde nabarmenak dituena.

17.- Idazkian dioenez, bere nebetariko bat, (...) jauna, “(...)ko burua da, ni (...)ko zuzendari kudeatzaile eta hurrengo urtean (...)ko zuzendari kudeatzaile izendatu baino 18 urte lehenagotik”.

Halaber, salatzailearen kontakizuna hasten den garaian -2011n- berak ez zuela (...)n lan egiten adierazten du.

18.- (...)ko burua kexaren egilearen doktorego-tesiaren egiletza bereganatu nahian ari zelako baieztapenari buruz, (...) andreak hau dio: “(...)ko buruak elkarrizketa izan zuen harekin eta tesia zuzentzeko eskaini zitzaion, erabili nahi zuen oinarritzko metodologia 2004tik aurrera erabiltzen ari zelako eta nazioarteko aldizkari entzutetsu batean 2009an argitaratutako ikerketa-proiektu baten oinarria izan zelako”. Honako hau eranstu du:

“Orduan zentzuzkoa zirudien interesdunari aukera hori eskaintzeak, beraren onerako, gaiari buruz lehendik zegoen esperientzia kontuan hartuta. Une hartan hark esan zuen jada bazeukala tesi-zuzendaria. Geroago, interesdunak tesia (...)rekin egiteko aukera planteatu zuenean, (...)ko buruak beraren arduradunengana jotzeko esan zion.

Bi arduradunek, interesdunarekin bildurik, azaldu zioten zergatik ez zen komeni ikerketa berak nahi zuen moduan egitea: (...)n interferituko zelako eta kalte egin zezaketen distortsioak sortuko zirelako, distortsio bereziki gertaerazak, (...) kontuan harturik. Hala ere, ikerketa (...)rekin egitera animatu zuten.

(...)k 1995etik aurrera (...)ko buru gisa eta 1988tik aurrera (...)ko irakasle gisa osatuta zeukan lanbide-curriculumak ikusirik, pentsaezina eta neurritz kanpokoak da uste izatea interesdunak aipatu duen bezalako jazarpen eta izen-belzte kanpaina bati ekiteko arrazoia izan daitekeenik pertsona horrek bere tesia zuzentzeko eskaintza bati uko egin izana”

19.- Kexan azaldutako gertaerei dagokienez, zehazki, (...) andreak adierazten du 2014ko apirilaren 4ko gorabehera izan zela gertaera guztien abiapuntua. Gorabehera haren ondorioz, “(...)ko Langileriaren zuzendaria bilera egin zuen interesdunarekin, eta azken hori oso kezkatuta zegoen apirilaren 4an gertatutakoagatik, (...)k (...)n eginak zituen oharrik ikusita. Elkarrizketa hartan — gehitzen du idazkiak—, “(...)ko burua jazartzen ari zitzaioela eta interesdunak egin zituen akusazioei erantzunez, Langileriaren zuzendaria proposatu zion langileen arteko gatazka-espedita bat hastea, laneko arriskuen prebentzioaren arloan (...)k horretarako ezarritako prozedurari jarraituz. Interesdunak ezeko biribila eman zion eta horrek asko harritu zituen bai Langileriaren zuzendaria bera bai ordezkari sindikala; azken hori prebentzio arloko ordezkaria ere bazen eta espedientearena oso ideia ona iruditu zitzaion”. (...) andreak bere idazkian honako hau gehitzen du: “(...)ko buruak, bestalde, apirilaren 4ko arratsaldean gertatutakoaren berri eman zion Langileriaren Zuzendaritzari, interesdunaren portaera ustez ezegokiaren berri, alegia, eta, halaber, (...)k gertaeren berri eman zion (...)ko buruari, eta hark Langileriaren Zuzendaritzari jakinarazi zizkion gertaerak, behar ziren neurriak har zitezen, halakorik berriro ez gertatzeko”.

20.- Horren guztiaren ondorioz —dio (...) andrearen idazkiak— “Langileriaren Zuzendaritzak informazio-espedita hastea proposatu zion Kudeaketako Zuzendaritzari, gertaerak eta

interesdunaren egintzak argitze aldera”. Geroago, ordea, betiere (...) andrearen idazkiaren arabera, “Langileriaren zuzendariak aitortu zuen interesduna behin-behinean zerbitzutik kanpora eramateko erabaki zen kautela-neurria ez zela egokia izan, eta, interesduna protagonista izan zuten gertaeren gaineko txosten kronologikoa ikusita, egokiagoa izango zatekeela une hartan diziplina-espeditentea has zedila planteatzea”

21. Jarraian, kexaren egileak eragindako zenbait gertaera gatazkatsu kontatzen ditu (...) andreak, eta honako hau baieztatzen du, “iritzi subjektiboa izan litekeela” aitortzen badu ere: “(...)ko titulua eduki arren (...) gisa kontratatuta egoteak interesdunari batzuetan zaildu egiten dio hertsiki betetzea lanean dagokion rola, daukan lanbide-kategoriaren arabera”. Eta hau gaineratzen du: “normalean bere eginkizunak gainditu ohi ditu, berari barik (...)ri dagozkion ekimenak bere gain hartuz. Jasotako jarraibideak askotan jarri izan ditu ezbaian, are okerrago, egoera oso gatazkatsuak sortu izan ditu lantaldeko beste (...) batzuekin, beraren ikuspuntuarekin bat ez zetozelako”.

22.- Horiek horrela —dio (...) andrearen idazkiak—, Langileriaren zuzendariak informazio-espeditentea hasia planteatu zuen, interesdunaren jokabidea argitu nahian, eta ondorioz (...) /2014 Ebazpena eman zen, instruktorea eta idazkaria izendatzeko. Haren iritziz, interesdunarekin hartu ziren kautela-neurriak “(...)ren segurtasuna bermatzea” zuten helburu, “ikusitako baitzen, (...)ren urtebeteren buruan, interesdunaren jokabideak, aginduak ezbaian jartze horrek, egoera arriskutsuak sortzen jarraitzen zuela”. Haren ustez, “seguru asko oker jokatu da, luzaroan konponbide baketsuak bilatzeko ahaleginak egin baitira, neurri zorrotzagoak hartu beharrean”.

23.- Hori horrela, hauxe da EPB honek, EJKren 16.4 artikuluko bigarren idatz-zatiak adierazten dituen tresna telematikoak baliatuta, hartu duen

ERABAKIA:

I.- Aurrekariak

1.- Etika eta Jokabide Kodea (EJK), Eusko Jaurlaritzaren Kontseiluak 2013ko maiatzaren 28an onartua, politikaren etika-zentzua berreskuratzeko asmoz sortu zen, bai eta herritarrek erakundeengan duten konfiantza berreskuratzeko neurri gisa ere.

Horretarako, Etika eta Jokabide Kodearen asmoa da identifikatzea zer jokabide eta portaera eska dakizkiekeen Eusko Jaurlaritzako goi mailako zuzendaritza betearazleko kide diren kargu publikoei eta parekatuei, haien jardura publikoak eta pribatuak guztiz bat etor daitezkeen dokumentu horretan aurrez zehaztutako balio, oinarri eta jokabide-estandarrekin. Horren guztiaren helburua

da osotasuna eta eredugarritasuna sustatzea, Jaurlaritzaren irudi instituzionala gordez, haren eraginkortasuna sendotuz eta herritarren erakundeenganako konfiantza gutxitu ez dadin ahalegina eginez.

2.- Etika eta Jokabide Kodeak oinarritzko bost balio ditu ardatz: integritatea, bikaintasuna, politika eta kudeaketa bat etorraraztea, lidergoa eta berrikuntza. Gainera, funtsezko sei printzipio ditu: inpartzialtasuna eta objektibotasuna; kudeaketari lotutako erantzukizuna; gardentasuna eta gobernatze irekia; onestasuna eta desinteres subjektiboa; errespetua, eta eredugarritasuna.

Balio eta printzipio horiek ardatz direla, Kodeak hainbat jokabide, jarrera eta portaera jasotzen ditu, eta EPB honek erreferentzia parametrotzat hartu behar ditu gai eta zalantza etikoei erantzun beharra egokitzen bazaio, beren borondatez Kodearekin bat egiten duten kargu publikodunek eta parekatuek zein Kodearen xedapenak eraginkortasunez betetzeko interesa duten gainerako pertsonak halakorik helaraziz gero.

3.- Horretarako, Kodearen 16.3. paragrafoak EJKren lehen tartekian ezarritakoaren arabera, EJK bera da organo eskuduna "Etika eta Jokabide Kodean jasotako balio, printzipio zein jokabideen balizko ez betetzei buruzko kexak edo salaketak jasotzeko, halakorik balego, eta dagozkien izapideak bideratzeko".

II.- EPB-RI AURKEZTUTAKO AZTERGAIA

1.- Hizpide dugun kexaren egileak hainbat gertaera deskribatu ditu bere idazkian, izaerari eta larritasunari erreparatuta askotarikoak. Bestalde, 2011tik 2015era bitarteko gertaerak dira. EPB hau subjektu- eta denbora-esparru hertsiki batean jarduteko baino ez dago gaituta. Beraz, ezinbestekoa da gure esku jarritako auzian bi parametro horiek mugatzea, ahalik eta zehatzen definitu ahal izateko zer nolako esparruan hartu behar dugun gure erabakia.

2.- EJK Gobernu Kontseiluaren 2013ko maiatzaren 28ko Erabakiaren bidez onartu zen, EHAAn argitaratzen denetik aurrera soilik ditu ondoreak —urte horretako ekainaren 3an argitaratu zen, hain zuzen—, eta 2. puntuari zehaztutako kargu publikodunentzat soilik du indar loteslea, kargu publikodun horiek lege ezarritako prozeduraren arabera izendatu eta Kodearekiko atxikipena formalizatu ondoren. Kodearen 18.3 puntuak horrela ezartzen du, zehatz-mehatz ezarri ere: "Kodeari banaka atxikitzearen ondorioz, kargu publikodunek eta parekatuek beren gain hartzen dute beren bizitza publiko zein pribatuan betiere Kodean berariaz adierazitako balio, printzipio eta jokabideen edukiarekin, asmoarekin eta espirituarekin bat datozen jokabide eta portaerak izateko betebeharra eta obligazioa".

3.- Ekainaren 26ko 1/2014 Legeak, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituenak, ez du aldatu EJKren aplikagarritasun-eredu subjektibo eta denborazko hori. Lege horren 5., 6., 7. eta 8. artikuluetan, "kargu publikodunen jokabide-kodea

zuzentzen duten printzipio orokorrak" jasotzen dira, eta printzipio horiek Legea indarrean sartu ondoren soilik izango dira lotesleak —Legea 2014ko azaroaren 1ean sartu zen indarrean—, eta 2. artikuluan zehaztutako kargu publikodunak soilik lotzen dituzte, kargu publikodun horiek ofizialki izendatu eta Legearen 11. artikuluan aipatzen den atxikitze sistemaren bidez Legearen aginduak betetzeko konpromisoa hartu ondoren. Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legeak, ordea, puntu honetan gehitu du (ikus 4. artikulua) Eusko Jaurlaritzak kargu publikodunen katalogoa argitaratu behar duela —eta urtero eguneratu—, Legearen aplikazio-eremuari ziurtasuna eta segurtasun juridikoa emateko.

4.- Horretatik guztitik ateratzen den ondorioa, erabaki honen esparru kronologikoa mugatzeari dagokionez, argia da. Nahiz eta salaketaren egilearen kontakizuna 2011n hasten den, EPB honek EJK indarrean jarri eta gero jazo ziren gertaerak baino ezin ditu aintzat hartu, kode horrek ez duelako atzeraeraginik, arestian esan dugunez. Erabaki honetan, beraz, 2013ko ekainaren 3tik aurrerako jokabideak eta portaerak bakarrik ebaluatuko ditugu.

5.- Kexak eremu subjektiboan duen proiektioari dagokionez, esan beharra dago ezen, interesdunak EPB honi bidali dion kontakizunean izenez aipatzen diren kargu edo ardura publikodun pertsonen artetik, (...)ko zuzendari kudeatzailea eta, halakorik bada, (...)ko Administrazio Kontseiluko kideak baino ez daudela EJKren eraginpean. Haiek bakarrik formalizatu zuten behar zen garaian eta moduan kodearekiko atxikimendu pertsonala, eta martxoaren 31ko 39/2015 Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko kargu publikodunen katalogo eguneratuan ageri dira. Gainerako guztiak —(...)ko burua, (...) andrea, gertaerak ikertu dituzten pertsonak, aurretiazko informazio-espeditzea izapidetu dutenak eta idazkian aipatzen den diziplina-espeditzea instruitu dutenak— (...)ko langileak dira eta, horrenbestez, EJKren aplikazio-eremutik eta Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen aplikazio-eremutik kanpo daude.

6.- Auzia aurreko puntuetatik ondorioztatzen den moduan mugatu eta gero, ahalik eta zehatzen erabaki behar dugu, interesdunak gertaeren kontakizunean azaldu dituen jokabideetatik, zeintzuk izan litezkeen EPB honen aztergai EJKren argitan.

7.- Kexa-idazkiak erakusten duen lan-ingurunean, “bat-etortze profesionaleko” une batzuekin batera, unitatea osatzen duten “langileen arteko gatazka-uneak” ere hautematen dira. Interesdunak esan du, zehazki, burutzako lanpostu batzuetatik “jazartzeko eta izen ona zikintzeko” kanpaina sustatu zela bere aurka, eta halako batean “lur jota” sentitu zela, hainbestearino ezen “isildu eta agindutakoa bete” besterik ez baitzuen egin, zuzendaritzak behin-behineko lekualdaketa proposatu zionean. “Lanpostuan gorriak ikusi” zituela ere esan du, horrexek ekarri ziola aldi baterako ezintasuna, eta ezintasun egoera horrek hainbat hilabete iraun zuela, “ospitaleratze bat barne”. Eta esan du, azkenik, beraren aurka aurkeztu duten salaketak “ezbaian” jarri duela beraren “izen ona, profesional gisa”, eta ezinbestez erantzun behar izan duela alegazioak eta kontrasalaketak aurkeztuz.

8.- (...) andreak bere alegazioetan ez du ukatzen zerbitzuaren baitan gertaera gatazkatsuak izan direla —gertaera horiek, bestalde, luze eta zabal jasorik daude kexaren egilearen aurka hasitako diziplina-espedienteko instruktoreak sinatutako ebazpen-proposamenean, zeina osorik bildu baitzaio espedienteari—, baina interesdunaren jarrerari eta portaerari egozten die errua, eta gogora ekartzen du nola, 2014ko apirilaren 4an gertatutakoaren ondorioz, (...)ko Langileriaren zuzendariak bilera egin zuen interesdunarekin, (...)ko ordezkaria aurrean zela, eta nola “elkarrizketa hartan, (...)ko burua jazartzen ari zitzaiola-eta interesdunak egin zituen akusazioei erantzunez, Langileriaren zuzendariak proposatu zion langileen arteko gatazka-espediente bat hastea, laneko arriskuen prebentzioaren arloan (...)k horretarako ezarritako prozedurari jarraituz. Interesdunak ezezko biribila eman zion eta horrek asko harritu zituen bai Langileriaren zuzendaria bera bai ordezkari sindikala; azken hori prebentzio arloko ordezkaria ere bazen eta espedientearena oso ideia ona iruditu zitzaion”.

9.- EPB honek ez du egoera multzo horri buruzko ikerketa abiarazteko eskumenik, ezta baliabiderik ere. Dena dela, ez dirudi EJKren aurkako urratzeen aurrean gaudenik —kontuan izan egoera horiek eragin dituzten pertsona gehienak, kexaren egilearen kontakizunaren arabera, estatutu- edo funtzionario-araubidekoak direla eta, beraz, Kodearen aplikazio-eremutik kanpo daudela—, baizik eta laneko segurtasunaren eta osasunaren alorrean indarra duen araudia betearazteko (...)k sortu dituen organoen baitan aztertu, izapidetu eta ebatzi beharreko gertaeren aurrean. Beste kontu bat da, aztertutako dokumentazioak islatzen duen lan-giro eskasa ikusita, komenigarria ote den neurriren bat hartzea, Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legean eta EJKn finkatutako balio eta printzipioen esparruan, kargudun publikoek eta parekoek zerbitzu publikoen etengabeko hobekuntzan erakutsi behar duten inplikazioarekin eta beren ardurapeko administrazio-unitateetan erabili behar duten lidergoarekin lotuta, lanaren antolaketan eta zerbitzuaren funtzionamenduan antzemandako akatsak gainditzeko lagunduko lukeena.

10.- Esanak esan, interesdunaren kexa, funtsean, zuzendari kudeatzaile andreaken jokabidearen aurkakoa da. Izan ere, andre horrek, (...)ko buruarekin bigarren graduko odol-ahaidetasuna eduki arren, esku hartu zuen, abstenitu beharrean, (...)ko buruak eta beste pertsona batzuek aurkeztutako salaketaren ondorioz hasitako auzi administratiboan.

11.- Nahiz eta, gorago esan dugun bezala, interesdunaren idazkiak mota askotako gertaera asko deskribatzen dituen —ez dira guztiak batzorde honetan aztertzeko modukoak, ikusi dugunez—, EPB honi zer eskatu nahi dion zehazterakoan kexaren egileak (...)ko zuzentzaile kudeatzailearen jokabidean jartzen du arreta. Horrelaxe egiten du idazkiaren goiburuan, “(...)ko Kudeaketako Zuzendaritzaren jokabidea dela eta” kexa jarri nahi duela azaltzen duenean eta EPBri eskatzen dionean “gomendioa emateko eta dagokion moduan jarduteko”, EJKekin bat etorri; horrelaxe egiten du, halaber, hirugarren alegazioan, non argudiatzen baitu zuzendari kudeatzaile andreaken jokabideak, alegia, “salatzaileetako baten arreba izan arren” ez abstenitzeak, 30/92 Legean ezarritakoa ez ezik EJKn ezarritakoa ere nabarmenki urratzen duela, non aipatzen baititu, zehatz-

mehatz, haren 4.1.1, 5.2.4, 6. eta 11.3 puntuen aurkako urratzeak; eta azkenik, horrelaxe egiten du bere idazkiko eskaera-atalean, non EPB honi eskatzen baitio “azaldutako gertaerak eta erantsitako agiriak aztertu, ebazpena eman eta ebazpenaren arabera joka dezala, (...)ko kudeatzailearen jarduketak direla eta”, nahiz eta azken kasu horretan —eta ez beste inon— (...)ko Administrazio Kontseilua ere aipatzen duen.

12.- Askotan adierazi dugu (adibidez, irailaren 19ko 8/2014 Erabakian) ez dagokiola EPB honi Administrazioaren jardunaren legezkotasunari buruzko epaiketak edo iritziak ematea. Kargu publikodunen egintzak antolamendu juridikoarekin bat ote datozen kontrolatzea beste organo administratibo eta jurisdikzional batzuen egitekoa da. Hauxe da EPB honek aginduta duen eginkizuna: irizpena ematea EJKrekiko borondatezko atxikimendua formalizatu duten kargu publikoek eta antzekoek hori betetzen duten.

Aurrekoak ez du esan nahi, halere, legea betetzeak zerikusirik ez duenik kargu publikodunen jokabide etikoarekin eta, ondorioz, faktore hutsala denik batzorde honek aginduta duen eginkizuna egoki betetzeko. Legeari jarraitu beharra oinarrizko arau etikoa da, kargudun orok bete beharrekoa, eta ez zaio arrotza EJKri, aitzitik, ahalegin handirik gabe detektatu daiteke EJKren atal askotan, hain zuzen ere EJK-k agintzen edo debeketzen dituen jarrerak eta jokabideak antolamendu juridikoan orokorki ezarritako portaera estandarren erreferentziaren bidez definitzen diren atal guztietan; alegia, jokabide horiek bere kabuz definitu beharrean Kodeak legean ezarritakoari jaramon egiteko agintzen duenean, jokabide onargarriak jokabide gaitzesgarrietatik bereizteko. Horrela gertatzen da honako atal hauetan: 5.2.2; 5.2.3; 6.eko 3. puntua; 11.3; 11.3ko 7. puntua; 13.eko 2. puntua; 13.eko 4. puntua; 14.eko 2. puntua eta 14.eko 7. puntua.

13.- Legea ez betetzea kargu publikodunei antolamendu juridikoa errespetatu beharra ezartzen dien arau etikoaren urratzea izan dadin, ordea, egiaztatu egin behar da —goian aipatutako 8/2014 Erabakian ere ohartarazi dugun bezala— legezkotasunaren kontra jarduteko asmo argia eta zalantzarik gabekoa izan dela, eta epaitutako jokaerak ezin duela babesik aurkitu gaiari aplikatu beharreko legeriaren interpretazio —gutxienez ere— defendagarri batean.

14.- Agintariak eta administrazioen zerbitzuko langileek prozeduran esku hartzeari zeintzuk kasutan uko egin behar dioten ezartzen duen oinarrizko arau juridiko-administratiboa Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko azaroaren 26ko 30/1992 Legearen (HAAJ eta APEL) 28.2 artikulua da. Oraingoan interesatzen zaigun gaiari dagokionez, manu horrek abstentziorako arrazoien artean aipatzen du “laugarren maila arteko [...] odol-ahaidetasuna izatea interesdunetako edozeinekin” (b letra).

15.- Hona hemen zeintzuk unetan esku hartu duen (...)ko zuzendari kudeatzaileak aztertzen ari garen auzian —kexaren egileak behin eta berriz ohartarazi du auziak zerikusia duela (...)ko buruarekin eta azken horrek bigarren graduko odol-ahaidetasuna duela (...)ko zuzendari kudeatzailearekin—:

- a) Ebazpen bidez erabaki zuenean hasiera ematea aurretiazko informazio erreserbatuko aldiari, interesdunaren balizko erantzukizunak argitze aldera, 2014ko apirilaren 4ko gertaerak zirela eta.
- b) Informazio-espeditentearen emaitza ikusi eta gero, ekainaren 25eko Ebazpenaren bidez diziplina-espeditentea abiaraztea erabaki zuenean, aipatutako gertaeren inguruan interesdunak izan zezakeen erantzukizuna argitze aldera.
- c) Ebazpen bidez erabaki zuenean, diziplina-espeditenteko instruktorearen eskariz, espeditentearen izapideak uztailaren 3tik irailaren 8ra arte etetea, “bai espeditentatua bai instruktorea aldi baterako ezintasun-egoeran daudelako eta gainera opor-sasoian gaudelako”.
- d) Ebazpen bidez erabaki zuenean, diziplina-espeditenteko instruktoreak egindako proposamenarekin bat etorri, “jarduketak artxibatzea eta espeditentea largestea, ez delako behar adina frogatu inolako faltarik egin denik diziplina-espeditentea eragin zuten gertaerekin loturik; hura ezin izan da modu sinesgarrian egiaztatu”.
- e) Auzibidearen aurreko erreklamazio bat ebatzi zuenean, interesdunak jarritakoa, jarduketak artxibatzea eta diziplina-espeditentea largestea erabaki zuen (...) Ebazpenaren aurkakoa.

16.- Ez zuen esku hartu, aldiz, kearen egileak bere salatzaileen aurkako diziplina-espeditentea hasteko eskatu zuenean, zeren eta, interesdunak berak kexa-idazkian aitortu duen moduan, “(...)ko kudeatzailearen abstentzioa” eskatu baitzuen, “haren neba salatuetakoa zelako; hark abstentzioa ematea onartu zuen eta (...)ko zuzendari nagusiari igorri zion, jakitun egon zedin eta ebatz zezan”.

17.- 2014ko apirilaren 4ko gertaerak zirela eta interesdunaren balizko erantzukizunak argitzeko aurretiazko informazio erreserbatutako aldiari hasiera eman zion ebazpena, (...) andreak bere idazkian zehazten duenez, “Langileriaren zuzendariak” eskaturik eman zen, eta ez (...)ko buruak eskaturik. Eta (...)ko zuzendari kudeatzaileak sinatu baldin bazuen, “informazio-espeditentea abiarazteko eskumena duen organoa Kudeaketako Zuzendaritza delako” egin zuen, idazki berean zehazten denez. Puntu hori dela eta (...) andreak argudiatzen duenez, “interesdunak behin eta berriz katalogatu du (...)ko burua salatzaile gisa, baina azken horrek bere eginbeharra besterik ez du egin: beste profesional batzuek alde aurretik helarazi dioten eta prozesu honetako bi instruktoreekiko elkarrizketetan berretsi duten salaketa transmititu”. Eta jarraian honako hau gehitzen du: “Hain zuzen ere buruaren jardunaren definizio oker horretan oinarritu du nire jarduketak ezegokitzat jotzeko arrazoibide osoa, nahiz eta, benetan, nire jarduketak legezkotasunari lotuak izan diren”.

18.- Egia da gure esku jarri den dokumentazioan ez dela inolako arrazoirik ageri uste ahal izateko aztergai dugun kasuan (...)ko burua “interesdun” gisa sailka litekeela, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 28.2 b) artikuluan egokitzeari begira. Espeditentea eragin zuten gertaerak hura buru duen zerbitzuaren baitan

gertatu ziren, bai, baina 2014ko apirilaren 4an gertatutako gorabeheraren berri hasiera batean (...)k jaso zuen, eta geroago bere nagusi hurrenari jakinarazi zion. Interesdunaren aurkako diziiplina-espeditetako instruktoreak sinatutako ebazpen-proposamenaren 17 folioak irakurrita, argi geratzen da buruak ez zuela inola ere parte hartu eztabaidatutako gertaeretan. Izan ere, ebazpen-proposamenak zehatz-mehatz azaltzen ditu gertaerak eta gertaeretan parte hartu zuten pertsona guztiek egindako adierazpenak, baina burua ez du aldi bakar batean ere aipatzen. Horrek erakusten du buruak ez zuela batere zerikusirik izan gertaerekin. (...)k sinatu eta (...)k bermatutako txostena Langileriaren Zuzendaritzari helarazi besterik ez zuen egin buruak, eta Langileriaren Zuzendaritza izan zen informazio-espeditetea hastea proposatu ziona organo eskudunari — zuzendari kudeatzaileari—. Bere menpekoek egindako salaketa Langileriaren Zuzendaritzari helarazi izanak —esku-hartze erabat mekaniko eta ia automatiko bat, duen kargua izanda ezinbestez egin beharrekoa—, ez du “interesdun” bihurtzen, administrazio-prozedurari buruzko legeriaren ondoretarako. Beraz, indarra duen araua urratu den ala ez alhora utzita —jada esan dugu ez dagokiola EPB honi horren gaineko irizpena ematea—, ez dugu hautematen (...)ko zuzendari kudeatzaileak hura urratzeko asmo garbirik izan zuenik. Alderantziz, haren jokabideak zentzuzkoa, logikoa eta funtsatua ematen du. Eta, jakina, arau indardunaren interpretazio — gutxienez ere— defendagarri batean oinarrituta dago.

19.- Beste horrenbeste esan daiteke aurretiazko informazio-espeditetea izapidetu behar zuten instruktorea eta idazkaria izendatzeko erabakiari buruz. Kexaren egileak azpimarratu egin du zuzendari kudeatzaileak espeditetea izapidetzeko instruktore eta idazkari izendatu zituen andreak “erakundeko teknikari juridikoak” zirela eta, beraz, “hierarkian bere menpekoak” zituela. Ez du berariaz esan aukera horrek ezbaian jarri zuela espeditetea izapidetu behar zuten pertsonen inpartzialtasuna, baina agian horrelako zerbait gertatu zela iradoki du, gogora ekarri baitu ez zitzaiola salaketaren kopiarik eman —nahiz eta “nire deklarazioaren egintzan hura irakurtzen” utzi— eta “eztabaidatutako gertaerak jazo zirenean aurrean zeuden langileei” entzuteko eskatu zuenean ezetza eman zitzaiola.

Horren aurrean, (...) andreak honako hau baieztatu du: “ohikoa da erakundeko teknikari juridikoengana jotzea instruktore eta idazkari lanak egin ditzaten, eta haiek kargu horri dagokion moduan jarduten dute, autonomia eta objektibotasun osoz”. Eta, egia esan, eginkizun horietarako izendatutako pertsonak administrazio-unitate bereko kideak izatea berez ez da nahiko arrazoi haien askatasuna eta inpartzialtasuna zalantzan jartzeko. Gainera, kexaren egileak alegatu dituen egitateak ere —salaketaren kopiarik eman ez izana eta beste funtzionario batzuei deklarazioa hartzeko eskaera ezetsi izana— ez dira berez inpartzialtasun-urratze horren froga.

20.- Interesdunaren balizko erantzukizuna argitze aldera diziiplina-espeditetea hasteko agindu zuen ebazpenari dagokionez, EPB honek jaso dituen agirietatik ondorioztatzen denez, (...)ko zuzendari kudeatzaileak ez zuen besterik egin aldeztatik izapidetu zen informazio-espeditetako instruktoreak egindako proposamena gauzatu baino. Horrenbestez, aurreko puntuetan egindako gogoetak bete-betean aplikatu ahal zaizkio. Baldin eta (...) andreak

informazio-espedientea irekitzea erabaki zuenean ez bazuen abstentzioaren legezko betebeharra nahita eta berariaz huts egin, koherentzia logiko hutsagatik, ezin izan zuen huts egin ezta espedientea izapidetu zuen instruktorearen proposamena gauzatzea erabaki zuenean ere.

21.- “Bai espedientatua bai instruktorea aldi baterako ezintasun-egoeran daudelako eta, gainera, opor-sasoian gaudelako” diziplina-espedientearen izapideak uztailaren 3tik irailaren 8ra arte etetea erabaki zuen ebazpenari buruz ere beste horrenbeste esan daiteke. Behin diziplina-espedientea hasita, zentzuzkoa eta koherentea da, hura hastea erabaki duen kargu publikodunari dagokionez, instruktoreak prozedurari buruz egiten dituen proposamenei jarraitzea, salbu eta espedientatuaren interesari kalte egiten diotenean edo argi eta garbi bidegabekoak direnean. Batez ere, kasu honetan gertatu den bezala, alderdi guztiek erabat onartzen baldin badituzte funtsezko eginkizun hori bere gain hartu duen pertsonaren inpartzialtasuna, askatasuna eta objektibotasuna. Kexaren egileak berak bere idazkian nabarmendu duen bezala, diziplina-espedienteko instruktorea “(...)ri atxikitako goi mailako teknikari juridikoa zen, eta, beraz, ez zen hierarkian (...)ren menpekoa”. (...)ko zuzendari kudeatzaileak, beste unitate bateko instruktorea izendatu izana justifikatzeko, arrazoizko eta arrazoitutako argudio bat erabili du: “idazkari eta instruktore karguak ezin zaizkie eman informazio-espedientearen ardura izan duten pertsoneri, eta, horregatik, (...)ko beste teknikari juridiko batzuegana jo zen”.

22.- Baina, gainera, kasu honetan proposamena ez zen izan ez kaltegarria ez bidegabekoa, ebazpenean neurri bermatzaile bat ezarri baitzen, interesdunaren interesen aldekoa, alegia, diziplina-espedientea behin-behinean geldiaraztea harik eta espedientatuaren aldi baterako ezintasun egoera amaitu arte. Harritzekoa —eta agian gaitzesgarria— izango zatekeen, aldiz, kontrakoa egitea, interesduna behartuz diziplina-espediente bateko eskakizun betiere gogaikarri eta zaileri erantzutera, medikuak onartutako aldi baterako ezintasuna eduki arren.

23.- (...) andreak ebazpena eman zuen “jarduketak artxibatzeke eta espedientea largesteko, ez delako behar adina frogatu inolako faltarik egin denik diziplina-espedientea eragin zuten gertaerei lotuta; hura ezin izan da modu sinesgarrian frogatu”. Bada, ebazpen horri dagokionez ere, (...) andrearen esku-hartzeari buruzko gure iritzia aurrekoaren berdina da. Ebazpena *in peius* desbideratu izan balitz instruktoreak egindako proposamenetik, kexaren egilearen posizio juridikoa astunduz edo hari kalte eginez, orduan, agian, ikuspuntu etikotik (...)ko zuzendari kudeatzaile andrearen jokabidearen zentzuari buruzko ikerketa sakonagoa egiteko aukera planteatu ahal izango litzateke. Baina espedienteko instruktoreak sinatu zuen ebazpen-proposamenak dio, hitzez hitz, espedientea largetsi eta artxibatzea proposatzen dela “ez delako frogatu inolako faltarik egin denik interesdunaren aurkako diziplina-espedientea eragin zuten gertaerei lotuta”, eta (...)ko zuzendari kudeatzaile andreak ondorioz eman zuen ebazpenak ere oinarritzat hartu zuen “ez dela behar adina frogatu inolako falta larririk egin denik interesdunaren aurkako diziplina-espedientea eragin zuten gertaerekin lotuta”.

24.- Kexaren egileak bere idazkian baieztatzen duenez, instruktorearen txostenetik “ondorioztatu behar da” kasua largesteko oinarria “salaketaren faltsutasuna” dela, eta ez espedientatuak inolako faltarik egin duenik frogatu ez izana. Eta gogora ekartzen du berak hori salatzeke alegazio-idazkia aurkeztu zuela eta bertan eskatu zuela “ebazpenean egia jaso zedin, hau da, salaketaren faltsutasuna, eta ez nire aurkako frogarik eza”. (...)ko zuzendari kudeatzaileak ezetsi egin zuen idazki hori. Kontua da, ordea, diziplina-espedienteko instruktoreak sinatutako ebazpen-proposamenak ez duela une batean ere salaketa faltsurik aipatzen. Dagoeneko ikusi dugunez, funtsean, proposamen horren ebazpen-zatian oinarri gisa azaltzen den argudio bakarra hau da: “ez da frogatu inolako faltarik egin denik interesdunaren aurkako diziplina-espedientea eragin zuten gertaerei lotuta”; argudio hori ia hitzez hitz errepikatzen da (...)ko zuzendari kudeatzailearen ebazpenean. Baina proposamenaren testua arreta handiagoz irakurrita ere ezin da argi eta garbi ondorioztatu salaketen faltsutasuna egiaztatu izana hartu denik proposamenaren oinarritzat. Bertan, kontakizun luze batean, hainbat pertsonak mota askotako gertaera askori buruz egindako adierazpenak azaltzen dira, eta baieztatzen da, horiek horrela, diziplina-espedienteari eragiten dioten egitatezko alderdi garrantzitsuenetako batzuen inguruan, inplikaturako pertsonak eman dituzten bertsioak oso desberdinak direla, eta, horrenbestez, salaketan jasotako gertaerak ezin direla frogatutzat eman. Hizpide dugun auzia bere testuinguruan kokatzen duen keinu oso adierazgarri batean, gainera, azpimarratu egiten da lantaldeko kideen arteko desadostasun pertsonalak daudela, ondorioz harreman profesionaletarako oztopo larriak sortu direla eta laneko giroa nabarmen gaiztotuta dagoela.

25.- Aurreko puntuan jasotako baieztapenak egiaztatzeke, nahikoa da diziplina-espedienteko instruktoreak sinatutako ebazpen-proposamenaren bi pasarte hona ekartzea. Espedientea izapidetzea eragin duten arrazoietako bigarrena aztertzen den atalean, esate baterako, instruktoreak hau idatzi du: “Ez dago frogatuta eta, beraz, ezin da zalantzarik gabe ondorioztatu prozeduraren hasiera atzeratu zenik, ezta hori interesdunaren ekintzarik ezari egotzi ahal zitzaionik ere. Nabarmendu beharra dago funtsezko aldea dagoela batetik (...)k adierazitakoaren eta bestetik (...)k adierazitakoaren artean; ez da alde nabarmenik ikusten azken bi horien adierazpenen artean” (7. folioa).

Hirugarren arrazoiari buruzko atalean instruktoreak dioenez, “(...) eta interesduna ez datoz bat zehazterakoan zein lekutan eta zein langileren aurrean egin ziren; beraz, bien adierazpen elkarren kontrakoak beste frogarik ez dagoenez, ezin da aintzat hartu salatutakoa” (9. folioa).

Eta, azkenik, espedientearen beste atal bati heltzerakoan, proposamenak hau dio: “Egiaztatutako gertaera guztiak eta agertu diren alderdiek azaldutakoak aztertu ondoren, instruktore honek uste du (...)ren prozesua seguru asko ez zela burutu modu ordenatu eta planifikatuan, baina badirudi esku hartu duten alderdi guztiei egotzi behar zaiela horren errua, “batak besteari modu aktibo eta positiboan entzun” ez izanaren ondorioz, itxuraz, esku-hartzaileen adierazpenak ez zirelako ulertu haiek nahi zuten zentzuan [...]. Egiaztatuta dago profesionalak jarraibide eta aginduei jarraituz jardun zutela, eta beren esperientziaren eta jardunbide profesional egokiaren arabera egoerak

eskatzen zuen eran bete zutela agindutakoa. Aurrekoa gorabehera, agerian jarri behar da elementu pertsonalak diruditenak nahasi direla elementu profesionalekin [...] Aurreko guztia ikusita ondorioztatu daiteke lantaldearen funtzionamenduak porrot egin zuela; kasu honetan horrek ez du ez atzerapen nabarmenik ez inolako kalterik eragin, baina hala ere azpimarratu egin behar da, hobetu beharreko alderdi gisa baloratu ahal izan dadin. Kideei adierazi behar zaie bakoitzak bere eginkizunak hartu behar dituela bere gain, argi zehaztu behar zaie zeintzuk diren bakoitzaren eginkizunak, behar izanez gero, eta kide guztien entzute aktibo eta positiboaren beharra erakutsi behar zaie, ezustean gerta litezkeen egoeretan berehalako erantzun koordinatua lortze aldera; eta, azkenik, erakutsi behar zaie lantaldeko kideen arteko harreman pertsonaletan guztiz ezabatu behar direla lanbide-jardueraren funtzionamendu ahalik eta onena eragotz dezaketen eragin negatibo guztiak” (16. folioa).

26.- Aurreko puntuan transkribatu diren pasarteetatik azkenean diziplina-espeditzeko instruktoreak jaso dituen oharrek gogoeta etiko garrantzitsuak eragiten dituzte, eta erabaki honetan ez ditugu albora utzi behar. Batez ere, kontuan hartzen bada (...)rekin zerikusirik ez duen organo baten oharrek direla eta prozedura honetan alegazioak egin dituzten pertsonetatik inork ez dituela zalantzan jarri organo horren objektibotasuna, askatasuna eta inpartzialtasuna. Bai Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legeak bai EJK-k barruan biltzen dituzte, erabaki honetako 9. puntuan aurreratu dugun moduan, kargu publikodunek zerbitzua hobetzeko daukaten konpromisoarekin eta beren ardurapeko administrazio-unitateetan erabili behar duten lidergoarekin zerikusia duten balioak, printzipioak eta portaerak. Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen 7. artikulua ezartzen du, adibidez, kargu publikodunek eta parekoek “ikuspegi estrategikoari eta planifikazioari lehentasuna” eman behar dietela, “arazoen eta etorkizuneko erronken irtenbidea aurreikuste aldera”; bilatu behar dutela “estrategiak, helburuak eta baliabideak ildo beretik joatea, goi-mailako zuzendaritzako maila politikoak eta zuzendaritzako nahiz bitarteko mailak aintzat hartuta eta, halaber, dagokien erakundean lan egiten duten gainerako pertsonak ere”, eta “karguari lotutako eginkizunak etengabeko ahaleginaz” bete behar dituztela, “gidatzen duten saileko edo unitateko prozesuen, produktuen eta zerbitzuen emaitzak beti hobetzeko eta pertsonen gaitasun profesionalak garatzeko”. Bide beretik, EJKren 7. atalean ezarrita dagoenez, kargu publikodunek beti ahalegindu behar dute “gidatzen duten saila edo unitatea etengabe hobetzeko”, eta “baliabideen erabileran eraginkortasuna lortzea izango dute helburu, baliabideak pertsonalak izan nahiz teknologikoak edo kudeaketa-prozesuen arlokoak”. Halaber, 8. atalean eskatzen zaie, politikaren eta kudeaketaren bat-etortzearen ondorioz, “jomugak eta helburuak partekatzea” eta “lana elkarrekiko leialtasun-giroan, konfiantza-giroan gauzatzea”. Eta 9. atalean eskatzen zaie langile publikoen artean “inplikazioa, buru-belarri aritzea eta leialtasuna” sustatu eta kutsatzeko. Halaber “lantaldeen trinkotasuna sustatuko dute, eta elkarreragina eta jarrera proaktiboa bultzatuko dituzte haien funtzionamenduan”.

Portaera-arau eta jarraibide horietan guztietan, kargu publikodunei zorrotz eta zuzen eskatzen zaie beren ardurapeko arloetan “hobetu beharreko” alderdiak hobetu ditzatela. Hala, “kideei

adierazi behar zaie bakoitzak bere eginkizunak hartu behar dituela bere gain, argi zehaztu behar zaie zeintzuk diren bakoitzaren eginkizunak, behar izanez gero, eta kide guztien entzute aktibo eta positiboaren beharra erakutsi behar zaie, ezustean gerta litezkeen egoeretan berehalako erantzun koordinatua lortze aldera; eta, azkenik, erakutsi behar zaie lantaldeko kideen arteko harreman pertsonaletan guztiz ezabatu behar direla lanbide-jardueraren funtzionamendu ahalik eta onena eragotz dezaketen eragin negatibo guztiak” (16. folioa). EPB honek ez luke ezarri zaion eginkizuna egoki beteko erabaki honetan gogora ekarriko ez balu Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legearen eta EJKren aginduek, lidergoari, bikaintasunari eta politikaren eta kudeaketaren arteko bat-etortzeari dagokienez, konponbidearen bila pertsonalki ahalegintzera behartzen dituztela interesdunaren aurka izapidetutako diziplina-espedienteko instruktoreak bere ebazpen-proposamenean azaldu dituen antolaketa-akatsak, harremanetakoak eta funtzionamendukoak beren ardurapeko eremuan detektatu zaizkien kargu publikodunak.

27.- Interesdunak kexa-idazkian dioenez, “profesional gisa bere izen ona” berreskuratu nahian eskatu zuen zehapen-prozedura abiaraz zedila bere salatzaileen aurka, eta (...)ko kudeatzailearen abstentzioa eskatu zuen, “haren neba salatuetakoa zelako; kudeatzaileak —gehitzen du— abstentzioa ematea onartu zuen eta (...)ko zuzendari nagusiari igorri zion, jakitun egon zedin eta ebatz zezan”. Puntu honetan kexaren egileak ez du inolako eragozpen etikorik jarri, bere abstentzio-eskaerari baiezkoa eman ziolako eskaeraren hartzaileak. Azken kasu hori aurreko kasuekin parekatu nahi izan du, ordea, agerian jarri nahian (...)ko zuzendari kudeatzaileak ez zuela berdin jokatu kasu guztietan —azken kasu horretan portaera etikoki zuzena agertu zuen eta aurreko kasuetan, berriz, jarrera moralki defendaezina, interesdunaren iritzi—. Hori dela eta, (...) andreak bere idazkian ohartarazten du funtsezko aldea dagoela konparazioko bi gaien artean: “Kasu horretan —dio, bera abstenitu zen aldiari dela— banituen abstenitzeko arrazoiak, (...)ko burua salatua zelako; baina ezbaian jarri diren lehenagoko administrazio-jarduketetan, aldiz, (...)ko burua ez zen ez salatua ez salatzailea”.

28.- Auziaren lege-alderdia eta alderdi hertsiki juridikoa orain baloratzen hasi gabe —gogoan izan ez dela EPB honen eginkizuna Administrazioaren jardunaren legezkotasuna kontrolatzea—, badirudi zuzendari nagusi andreak kasu honetan irizpide desberdina erabili izana zentzuzko eta funtsatutako jokabidea dela. Lerro batzuk gorago adierazi dugunez, (...)ko buruak ez zuen besterik egin bere menpeko batzuek gertaera gatazkatsu baten inguruan egindako salaketak Langileriaren Zuzendaritzari jakinaraztea baino, eta berak ez zuen gatazka horretan zuzenean eta pertsonalki parte hartu. Gure ustez, (...)ko burua ez zen “interesdun” izan gatazka horren ondorioz hasitako administrazio-jarduketetan. Kasu honetan, aldiz, bere izena aipatuta salaketa jarri zaion pertsona bat “interesduna” da, zalantzarik gabe.

29.- Kargu publikodunei indarra duen legearen arabera jarduteko agintzen dien arau etikoa bete ez izanaz harago, kexaren egileak (...)ko zuzendari kudeatzaileari leporatu dio EJKren zenbait atal urratu izana, eta atal horiek lotura estua dute, esanahiz eta helburuz, Herri Administrazioen

Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 28.2.b) artikuluan jasotako abstentzio-eskakizunarekin. EJKren atal hauek dira, zehazki: 4.1.1 puntua (osotasuna); 5.2.4 puntua (onestasuna, desinteres subjektiboa); 6. puntua (kargu publikodunen edo parekatuen integritateari, inpartzialtasunari eta objektibotasunari lotutako jokabideak eta portaerak), eta 11.3 puntua (interes-gatazkak).

30.- Gure esku jarritako auziaren iturri izan den gatazka sortu zaion administrazio-unitatean itxuraz nagusitu den lan-giro gaiztoak— aurrean ohartarazi dugunez, interesdunaren aurka abiarazitako diziplina-espedienteko instruktoarak bere ebazpen-proposamenean argi eta garbi esan du “lantaldearen funtzionamenduak porrot egin zuela [...] eta hori azpimarratu egin behar da, hobetu beharreko alderdi gisa baloratu ahal izan dadin. Kideei adierazi behar zaie bakoitzak bere eginkizunak hartu behar dituela bere gain, argi zehaztu behar zaie zeintzuk diren bakoitzaren eginkizunak, behar izanez gero, eta kide guztien entzute aktibo eta positiboaren beharra erakutsi behar zaie, ezustean gerta litezkeen egoeretan berehalako erantzun koordinatua lortze aldera; eta, azkenik, erakutsi behar zaie lantaldeko kideen arteko harreman pertsonaletan guztiz ezabatu behar direla lanbide-jardueraren funtzionamendu ahalik eta onena eragotz dezaketen eragin negatibo guztiak”— ez du errazten unitate horretan barneratzea haren kideen jokaerari buruzko epaiketa etikoa egiten duenaren jarduna gidatu behar duen zorrotzasun eta zuhurtasunarekin. EPB honek ez ditu zuzenean ezagutzen auziarekin zerikusia duten pertsonak, eta auziaren gaineko dokumentazioaren bitartez baino ez ditu ezagutzen haien jarrerak, jokaerak eta egintzak. Uste dugu, nolana ere, ezagutzen ditugun gertaeretan (...)ko buruak izandako esku-hartzea ikusirik — itxuraz alboko esku-hartzea, formala, mekanikoa eta soil-soilik prozedurazkoa, erakundearen egitura hierarkikoan hark betetzen duen eginkizun profesionalaren ondoriozkoa— (...)ko burua ez dela izan auzian hainbesteraino “interesduna”, alegia, (...)ko zuzendari kudeatzailea, harekin bigarren graduko odol-ahaidetasuna baitu, harekin zerikusia duen erabakiren bat hartu behar duen bakoitzean interes-gatazkan erortzeraino.

31.- EJKren 11.2 puntuak dioenez, “kargu publikodun eta parekatuek beren postu publikoaren interesekin batera norberaren interes pribatuak, zuzeneko senideen interesak edo hirugarren pertsonekin partekatutakoak agertzen diren kontuekin zerikusia duten erabaketan esku hartzean sortzen dira interes-gatazkak”. Funtsean, kontrakorik frogatu ezean —eta ez da halakorik egin aztergai dugun kasuan— (...)ko buruak, interesdunaren jokabidea zela-eta bere menpekoek jarritako salaketa Langileria Zuzendaritzari jakinaraztea erabaki zuenean, gorago transkribatu den EJK-ko arauak agintzen duen bezala, ez zuen bere interes pribatu eta partikularrari jarraituz jokatu, aitzitik, interes publiko objektiboari begira aritu zen, berak zuzentzen duen zerbitzuan sortutako gatazkari konponbide legezkoa, baketsua eta orekatua bilatu nahian. Aztertutako dokumentazioan ezerk ez du kontrakoa pentsarazten. Eta (...)ri dagozkion kontu guztiak bertako buruaren “interes pribatu” baten adierazpenak izango balira, (...)ko zuzendari kudeatzailea abstenitu egin beharko litzateke zerbitzu horri dagozkion arazo guztietan, aztertzeari uko eginez; halako hipotesia zentzuzgabea da eta baztertu egin behar dugu.

32.- Interesdunaren idazkiko *petitum* atalean, bestalde, (...)ko Administrazio Kontseiluak “egindako jarduketak” aztertu beharra aipatzen da, bidezkoak izan litezkeen neurriak hartzeari begira. Horretaz ezin dugu ezer esan erabaki honetan; bakar-bakarrik adieraz dezakegu puntu horretan eskaera ez dela behar bezala argudiatu, ez baita azaldu zergatik aipatutako organoaren jarduketak ikuspuntu etikotik akatsen bat izan dezakeen; eta argi dago ezin direla kide anitzeko organo bateko kide guztiengan gertatu (...)ko zuzendari kudeatzaileak zituen inguruabar pertsonalak, hain zuzen ere kexaren egileak (...) andrearen aurka formulatu duen gaitzespenaren oinarri nagusi izan direnak.

Hori guztia aintzat hartuta, hauxe da EPBk aho batez hartutako

ERABAKIA:

1. Ez dugu uste (...)ko zuzendari kudeatzaile (...) andreak, bere jokabidearen bitartez, kargu publikodunei legea errespetatzeko eskatzen dien oinarrizko arau etikoa urratu duenik — kasu honetan, Herri Administrazioen Araubide Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen 28.2.b) letran jasotako legezko abstentzio-agindua nahita eta jakinda urratu duenik—, ezin delako pentsatu (...)ko burua, zeinarekin bigarren graduko odol-ahaidetasuna baitu, auzian “interesduna” denik.
2. Ez dugu uste, era berean, (...)ko zuzendari kudeatzaile (...) andreak urratu dituenik EJK-k osotasunari, interes subjektibo ezari eta interes-gatazkari buruz dakartzan arauak, zeren eta —betiere erabaki honetako 29. zenbakian jasotako zehaztasunak ahaztu gabe— ezagutzen ditugun gertaeretan (...)ko buruak izandako esku-hartzea albokoa, formala, mekanikoa eta soil-soilik prozedurazkoa izan baita, erakundearen egitura hierarkikoan betetzen duen eginkizun profesionalaren ondoriozkoa, eta esku-hartze horrek ez baitu hura auzian “interesdun” hainbestearaino bihurtzen, alegia, (...)ko zuzendari kudeatzaile andrea, zeinarekin bigarren graduko odol-ahaidetasuna baitu, harekin zerikusia duen erabakiren bat hartu behar duen bakoitzean interes-gatazkan erortzeraino.
3. (...)ko Administrazio Kontseiluaren jarduna ez dugu aztertuko, puntu horretan interesdunaren eskaera ez dagoelako behar bezala argudiatuta. Izan ere ez du lerro bakar bat ere idatzi azaltzeko zergatik aipatutako organoaren jarduketak ikuspuntu etikotik akatsen bat izan dezakeen; eta argi dago ezin direla kide anitzeko organo bateko kide guztiengan gertatu (...)ko zuzendari kudeatzaileak zituen inguruabar pertsonalak, hain zuzen ere kexaren egileak (...) andrearen aurka formulatu duen gaitzespenaren oinarri nagusi izan direnak.

4. Eragindako alderdiei iradokitzen diegu kontuan har dezatela laneko segurtasunaren eta osasunaren arloan indarra duen araudia betearazteko (...)k sortutako organoen baitan ekimenen bat sustatzeko aukera.
5. (...) andreari gomendatzen diogu, (...)ko zuzendari kudeatzaile gisa egiten duen lanaren objektibotasun eta inpartzialtasunaren inguruko zalantza edo susmorik txikiena ere desagerrarazte aldera eta, horrela, bere zintzotasun eta osotasun irudia babeste aldera, tentu handiz joka dezala (...)ri eragiten dioten erabakiak hartzerakoan, eta ikusten duenean berak arazoren batean parte-hartuz gero interes-gatazka baten susmorik txikiena ere sor daitekeela, ez dezala esku hartu arazo horretan.
6. Kargu Publikodunen Jokabide Kodea eta haien Interes Gatazkak arautzen dituen Legeak eta EJK-k agindutakoa bete behar duten (...)ko kargu publikodun guztiei —eta, batez ere, erakundeko zuzendari nagusiari, (...)ko zuzendari kudeatzaileari eta Langileriaren zuzendariari— gogora ekartzen diegu, erabaki honetako 9. eta 26. puntuetan azaldutako gogoeten ildotik, bi testu horiek ezartzen dizkieten jokaera-arauek, lidergoarekin, bikaintasunarekin eta politikaren eta kudeaketaren arteko bat-etortzearekin lotuta, behartzen dituztela pertsonalki ahalegintzera, esleituta dauzkaten eskumenen eremuan, interesdunaren aurka izapidetu den diziplina-espeditenko instruktoreak bere ebazpen-proposamenean zehaztu dituen “arloen” hobekuntzan.



Josu Iñaki Erkoreka Gervasio
Etika Publikorako Batzordeko burua

Vitoria-Gasteiz, 2016ko otsailaren 19a